







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %1,4 egin zuen behera urrian, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industriarian %3,6 igo zen; etxekoan eta zerbitzu arloan, berriz, %7,5 eta %9,1 jaitsi zen, hurrenez hurren. Urrira arteko izandako kontsumo metatuak %2,6 egin zuen gora; etxeko sektorean %3 igo zen, zerbitzuan %2,9 eta industriarian %0,8; zementu sektorean %5,2 igo zen, baita burdinazkoa ez den metalurgian, %5,7, itsas eraikuntza eta konponketan, %34,8 eta kautxuaren eratorrietan ere, %2,1. Behera egin zutenak, ordea, beiragintza (%1,9) eta papera (%1,9) izan ziren.







#### Gas naturala

Urrian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %8 egin zuen behera, 2014ko urrian izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %46,5 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %5,8 igo zen. Urrira arteko izandako kontsumo metatuak %1 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%18,2 CCTT-n eta +%6,5 gainerako sektoreetan).

#### Erregaiak garraioan

Irailean, garraioan erregaien kontsumoa %0,6 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinaren kontsumoak %5,1 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %1,3 egin zuen gora. Iraila arteko kontsumo metatua %2,9 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinena %1,4 jaitsi zen eta A gasolioarena, ordea, %3,4 igo zen.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.








### EAetik kanpoko egoera

**Petrolioaren kontsumoa munduan**  
 Urrian, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 94,4 milioi kupel izan zen (2014ko urrian izandakoaren aldean, %1,1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1,6 egin zuen gora kontsumoak, 14,2 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3 egin zuen gora, eta 11,2 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %1,2 jaitsi zen, eta 19,4 Mbpd kopuruan kokatu zen.  
 Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, oro har; zahazki, Txinan %2,8, AEBetan %1,8 eta Europar Batasunean %1.

**Energiaren kontsumoa Espainian**  
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %7,5 egin zuen gora urrian, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urrira bitartean izandako kontsumo metatuak %5,4 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen urrian, %0,1, 2014ko urrian izandakoaren aldean. Urrira bitartean izandako kontsumo metatuak %2,9 egin zuen gora.  
 Errepedeetan erregaien kontsumoak %0,6 egin zuen gora irailan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %1,5 jaitsi zen eta gasolioena, ostera, %1 igo zen. Iraila bitarteko kontsumo metatuak %3,5 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,6 igo zen gasolinena eta %4,2 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %13,1 egin zuen gora irailan; irailera bitarteko kontsumo metatuak %8,7 egin du gora, aurreko epealdiarekin erkatuta.  
 Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 48,1 \$ (42,8 €) izan zen urrian. Urte mugikorren batez besteko prezioak %45,7 egin zuen behera (%36,1 eurotan).

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 49,9 €/MWh izan zen urrian; duela urtebetearen aldean, %9,5 egin zuen behera.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 19,3 €/MWh izan zen irailean, eta %8,3 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urrian, EGIX-en prezioa 18,2 €/MWh izan zen (2014ko urrian izandakoarekin alderatuta, %21,4 jaitsi zen). Spot merkatuetan, urrian, Henry Hub-en prezioa 7,1 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 24 €/MWh (2014ko urrian izandakoaren aldean, %29,8 eta %28,2 egin zuten behera, hurrenez hurren).

#### Erregaien prezioa

EAEn, urrian, gasolioaren prezioa 1,05 €/l izan zen (urtebetean %17,2 jaitsi da), eta gasolinarena 1,14 €/l (urtebetean %9,5 jaitsi da).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8,4 €/t izan zen urrian, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %39,1 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.